

Laguntza medikoko zerbitzuaren protokoloa eta eskola-aseguruaren estaldurei buruzko informazioa BIGEn federatutako ikastetxeetarako eta guraso-elkarteetarako

BIGE + AXA + IKASLARIN

2023-2024 Ikasturtea

Ikastetxeko osasun-arreta **IKASLARINen** bidez ematen da, zerbitzu mediko pribatua baita. **Osasun-laguntza** ematen du ikastetxeetan astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 19:00etara, guraso-elkarteek edo ikastetxeek antolatutako ekitaldiak eta jarduerak bere gain hartzeko.

IKASLARIN EZ DA larrialdi-zerbitzu bat, osasun-laguntzako zerbitzu bat baizik. Istripuak bakarrik artatuko dira, eta inoiz ez dira gaixotasun arruntak tratatuko.

Zentroan bertan ikasturte hasieratik (iraila) ekainera arte emango da asistentzia. Uztailean ere izango da asistentzia zentroan, betiere alde zurretik BIGEri jakinarazi bazaio.

GARRANTZITSUA DA istripua izan duen ikaslea

- heldu batekin batera egotea, medikua iristen denean, hari osasun-arreta emateko beharrezkoa den informazioa jaso ahal izateko.
- asistentziak egin ohi diren lekuan egotea, ahal den neurrian alferrikako denbora-galerarik gerta ez dadin. Horretarako, IKASLARINeko operadoreek ikastetxera iristeko behar duten denbora jakinaraziko dute.

Eskola-kiroleko jarduerak ere badute estaldura (larunbata-igandea), betiere IGEak edo ikastetxeak gainbegiratuta antolatzen badira.

Ez dira proba osagarriak egingo, baldin eta alde zurretik IKASLARINek baimendu edo gainbegiratu ez baditu.

Ikaslearen arduradunek IKASLARINeko langileei ez itxarotea erabakitzen badute eta zuzenean joatea zentro mediko batera, beren irizpidearen arabera eta beharrezko urgentzia ez bada, beren kontura izango dira emandako asistentzian egindako gastuak.

Ikastetxetik osasun-zentrorra taxiz egindako lekualdaketak polizatik kanpo geratzen dira, osasun-laguntzaren bermeak ez baitu barne hartzen joan-etorrien gastuei aurre egiteko estaldura.

ISTRIPUA 09:00ETATIK 19:00ETARA GERTATZEN BADA (ASTELEHENETIK OSTIRALERA).

Harremanetarako telefonoak: 94.443.77.82/691 849 861/691 849 858.

Deia jaso ondoren, osasun-koordinatzaileak balioetsiko du, eta bertaratze-eskaerarako aukerarik egokiena zein den erabakiko du. Honako hau erabaki ahal izango du:

- **Medikuak ikastetxera joatea**, baldin eta egoera zentroko instalazioetako konpon badaiteke. Medikua ikastetxera joango da dagokion laguntza ematera. Sendaketa *in situ* egingo da.

Osasun-laguntza *in situ* zentzuzko denboran egin ezin den eremuetan, zauritua mediku-zentro egoki batera bideratuko da.

Medikuak itunpeko osasun-zentro batera joatea erabakitzen badu proba gehigarriren bat egiteko, ikastetxeko arduraduna edo IGEen arduradunak familiarekin, legezko tutoreekin edo pertsona arduradunarekin jarriko dira harremanetan, informazioa emateko eta lekualdaketa nola egin erabakitzeko.

- **Istripua izan duen ikaslea osasun-zentro batera bidaltzea**, zentroko instalazioetan konpondu ezin bada. Kasu horretan, istripua izan duen ikaslearen arduradunek itunpeko osasun-zentro batera jo ahal izango dute (begiratu zentroen zerrenda). **Istripua izan duen ikaslearen arduradunek protokolo honi erantsitako zerrendan agertzen ez den beste osasun-zentro batera eramatea erabakitzen badute, eragindako fakturazio-gastuak 1.500 eurora arte soilik estaliko dira.**

Bertaratze-eskaria ikastetxeak edo **gurasoen elkarteko arduradunek** baino ez dute egingo, eta ez istripua izan duenaren senideek.

LEKUALDATZEAK: Medikuak itunpeko osasun-zentro batera joatea erabakitzen badu proba gehigarriren bat egiteko, ikastetxeko arduraduna edo IGEen arduradunak familiarekin, legezko tutoreekin edo pertsona arduradunarekin jarriko dira harremanetan, informazioa emateko eta lekualdaketa nola egin erabakitzeko.

Bilbotik urrun dauden herrietan, eta atzerapena ohi baino luzeagoa izan daitekeen kasuetan, erreferentzia-puntu bat jarriko da ikastetxeen eskura, eta beren kabuz joan beharko dute bertara.

ISTRIPUA 19:00ETATIK AURRERA GERTATZEN BADA

Ez da osasun-laguntzarik izango *in situ*, baina istripua izan duena itundutako osasun-zentro batera eramán ahal izango da (begiratu hitzartutako osasun-zentroen zerrenda).

Lekualdaketa egin aurretik, gorabeheraren berri emango zaio Ikaslarini (**691 849 861/691 849 858**).

ISTRIPUA LARUNBAT EDO IGANDE BATEAN GERTATZEN BADA, GURASO ELKARTEAK EDO IKASTETXEAK ANTOLATUTAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAKO BATEAN

Ikaslarinera deituko da (**691 849 861/691 849 858**) istripuaren berri emateko. Ondoren, ikaslea

itunpeko osasun-zentro batera eramango da (begiratu erreferentziako laguntza-zentroen zerrendatik).

Bi kasuetan, osasun-zentrora iristean, adingabearen eskola zein den eta haren aseguruua AXA dela jakinarazi behar da, IKASLARINen mediku-laguntzarekin.

GOIZTIAR TXIKIAK/GOIZEKO GELA "Goiztiar txikien" zerbitzuan dauden ikasleek 08:00etatik aurrera izango dute asistentzia.

IRTEERAK/TXANGOAK

Polizaren babesa izan ahal izateko, aldezturik BIGEri irteeren eta desplazamentuen berri eman behar zaio, joan-etorriak, ikasle kopurua, nora joango diren eta datak zehaztuta. Horrela, istripuren bat izanez gero nora jo jakinaraziko da.

UDALEKUAK

Guraso elkarteak antolatzen dituen eta ikastetxearen barruan egiten diren campusak eta horien irteerak edo txangoak eskola-aseguruak bere gain hartuko ditut. Aldezturik, BIGEri jakinarazi beharko zaio noiz egingo diren, parte hartuko duten ikasleak eta aurreikusitako jarduerak.

GARRANTZITSUA: Aurreko kasu guztietan, jasandako lesioak direla-eta osasun-zentro batera **berehala eta premiaz** eraman behar izanez gero, anbulantzia bidez egingo da, eta **112** zenbakira eskatuko da anbulantzia. Ondoren, IKASLARINI eta BIGEri jardun horren berri eman beharko zaie, eskola-aseguruan sartzeko.

Ikastetxetik osasun-zentrora taxiz egindako lekualdaketak ez dira polizaren estaldurakoak izango. **Ez da aurreikusten joan-etorrien gastuei aurre egiteko estaldura.**

ITUNDUTAKO OSASUN-ZENTROAK

Klinikara iristean, jakinarazi zein ikastetxetatik datorren eta bere aseguru AXA dela, Ikaslarinen asistentzia medikoarekin.

AMOREBIETA DURANGO	CENTRO MÉDICO GANE Gane Auzunea, 3 TLF 946 73 04 04
MARGEN IZQUIERDA	HOSPITAL SAN JUAN DE DIOS Av. De Cristóbal de Murieta,70TLF 944 93 99 00 CENTRO POLICLÍNICO PORTUMEDIC S.L. Pza. Dr. Marcos Escorihuela, 2 y 4 TLF 944 93 56 03
BILBAO	CLÍNICA GUIMÓN Traumatología XXI Manuel Allende, 24 TLF 944 66 62 22 CLÍNICA, VIRGEN-BLANCA Maestro Mendiri, 2 TLF 944 12 70 11 IMQ ZORROTZAURRE Ballets Olaeta, 4 TLF 944 75 50 00 QUIRON SALUD-HOSPITAL Ribera Botica Vieja, 23 TLF 944 39 60 62
ERANDIO	QUIRON SALUD-HOSPITAL QUIRON SALUD BIZKAIA CR Leioa-Unbe, 33 TLF 902 44 55 95
GALDAKAO	CLÍNICA ANDRA MARI Pontzi Zabala, 1 TLF 944 57 23 64
AMOREBIETA DURANGO	CENTRO MÉDICO GANE Gane Auzunea, 3 TLF 946 73 04 04

Errehabilitazio-zentro itunduak.

BILBAO	ARS MÉDICA (IRISAI REHABILITACIÓN S.L.P.) Avenida Sabino Arana, 1 TLF 944 21 72 80 CENTRO DE REHABILITACION AJURIAGUERRA Juan de Ajuriaguerra, 32 TLF 944 23 93 22
BARAKALDO	ARS MÉDICA (IRISAI REHABILITACIÓN S.L.P.) Ibarra, 8 TLF 944 38 00 00
GERNIKA-LUMO	CENTRO DE FISIOTERAPIA JUAN LONGA Urkieta, 4 TLF 946 18 62 44
GETXO	CENTRO FISIOMÉDICO (TRAUMATOLOGÍA Y REHABILITACIÓN) Alangobarri, 7 TLF 944 60 31 70

IGORRE	CENTRO DE FISIOTERAPIA IGORRE Elexalde, 4 TLF 944 57 23 64
LEIOA	CENTRO FISIO-MÉDICO LEIOA (REHABILITACIÓN) Kandela Zubieta, 23-25 Bajos TLF 944 02 00 48
MUNGIA	CENTRO MÉDICO VILLALUISA (REHABILITACIÓN) Goieta, 5 TLF 946 74 50 42

DENTISTAK

BEHARREZKOA da istripua IKASLARINI jakinaraztea, gertatzen den unean, aseguruak gastuak estaltzeko. **Polizaren muga 1.500 €-ra artekoa da.**

Aseguruak eskatzen duen dokumentazioa:

- Ikaslarinen partea.
- Faktura.
- Banku-kontuaren zenbakia eta titularra jasotzen dituen libretaren lehen orria.
- Titularraren NANA.

Dokumentazio hori guztia **gisasi@bige.eus** helbidera bidaliko da, zentrotik edo guraso-elkartetik.

BETAURREKOAK

Betaurrekoak aseguruak estaliko ditu, baldin eta istripu bat gertatzen bada eta ebakuntza mediko bat behar izan bada eta, beraz, **IKASLARIN** zerbitzu medikoari jakinarazi bazaio.

Ez dira estaliko in situ interbentzio medikorik edo lekualdatzerik behar izan ez duten ekintzen ondorioz sortzen diren betaurrekoak. Ez da betaurrekoak hausteko aseguru, osasun-arretako istripuetarako aseguru baizik.

BEHARREZKOA da istripua IKASLARINI jakinaraztea, gertatzen den unean, aseguruak gastuak estaltzeko. **Polizaren muga 300 €-ra artekoa da.**

Aseguruak eskatzen duen dokumentazioa:

- Ikaslarinen partea.
- Betaurreko hautsien argazkia.
- Faktura.
- Banku-kontuaren zenbakia eta titularra jasotzen dituen libretaren lehen orria.
- Titularraren NANA.

Dokumentazio hori guztia **gisasi@bige.eus** helbidera bidaliko da, eskolatik edo guraso-elkartetik.

PROTESIAK

AXAren zerbitzu medikoen bidez polizan estalitako istripu baten ondorioz, protesien kasuan, gehienez 1000 €, urtebeteko iraupenarekin.

BIDAIAKO LAGUNTZA-ASEGURUA (ikasketa-bidaiak barne)

Bidaiaren iraupena 90 egunetik gorakoa ez bada, gaixotasunagatiko edo istripuagatiko asistentzia bermatuko da.

Atzerrira bidaiatuz gero, 12.000 €-ko muga izango du. Nolanahi ere, AXAk izendatutako medikuari dagokio erabakia hartzea, eta kasu bakoitzean gaixoa artatzen duen medikuarekin koordinatuta eta, hala badagokio, familiarekin.

Aldez aurretik, BIGEri bidaiaren helmuga, parte-hartzaile kopurua eta bidaiaren datak jakinaraziko zaizkio.